



Perkins
Norman
Gaztelupeko Hotsak,
2013

Zinema zale rockeroak giro eta esperimentazioan sakontzen

POZGARRIA da noizbehinka genero itxietatik kanpo, aurreiritzirik gabe eta modei uko eginez, barrenera soilik begiratuta, Euskal Herriko rockari, erritmo biziei eta amorruari buelta erdia ematea. Beraien krimenak Norman izenpean egiten dituzten eibartarrek –ondarrutar eta sorluzetar bana arduratzen da biktimak lotzeaz– disfrutatzea dute helburu bakarra. 2007an Eibarreko Legarreko lokaletan Electric Dolls punk-rock taldean aritutako Alex eta Kobi; The Gominols eta Skandalu Publikun gaizkile gisa aritu zen Kepa; eta oraindik fitxa polizialik ez duen Beñat elkarrekin gauaren erdian irteten hasi ziren inork zehatz ez dakien lekuetara. Baina bat-batean, 2008an, Danbaka musika lehiaketako finalera heldu ziren. Eta 2009an Bilbo Hiria lehiaketarako ere sailkatu ziren. Hori guztia, inongo lanik kaleratu gabe zirela. Zertan demontre ibiltzen dira gaudetan?

Gaizkile hauek musika asko eta oso anitza entzuten dute. Ezin dute ezkutatu nolabaiteko iragan hardcorea dutela, melodiaren zaleak direla eta euskal musika ere apreziatzen dakitela; ezohiko ezau-garriak hirurak, eta guztiak batuta, are eta bereziagoa emaitza. Beraien lehenengo lana (*Norman*, Gaztelupeko Hotsak, 2009) haize fresko bezala definitu genezake, baina kantu guztiek *Psicosis* filma dute oinarri. Garapen eta erritmo aldaketa handiko kantuak dira, psikodelia eta giro oso ilunez josiak, eta aldi berean oso melodikoak. Izan ere, askotan beraien burua balazta gabe maldan behera bota izan dute punk-rock ilun, melodiko eta skizoaren

bila. Korapilatsuegiak punk-rock zaleentzat eta rockeroegiak esperimentazioaren jarraitzaileentzat.

Kontzertu batzuk –gutxi– eman ostean, Legarreko lokalean berriro ezkutatu eta jende ondratuak lo egiten duen bitartean abestiak idazteari ekin eta gaizkide duten Ander Barriusoren laguntzarekin grabatzen hasi ziren. Sasoi hartan Kobi bateria jotzaileak taldea utzi zuen eta Kaosaren erasoak taldeko Peñalbak ordezkatu zuen. Beñaten esperimentazio nahiak iturburu handiagoa aurkitu zuen, iraganean azal azpian bizi zen 50eko hamarkadako rocka ia alboratu eta Peñalbak kolpe are eta kaotikoagoa, are eta bortitzagoa, eman dio lanari.

Perkins diskoak (Biniloan plazaratu da, CDa barruan opari duela) *Psicosis*-en erruz jaio zenari jarraipena ematen dio eta B seriean eta zine beltzean inspiratuta, erregistro, sonoritate eta giro gehiagorekin jolasten dute ia mugarik gabe. Era berean, musikari moduan hazi egin dira, Beñat abeslariak lan itzela egin du eta beraien musikak transmititzen duen ezinegona –oso talde gutxik lortzen dutena– areagotu egin da. Bada oraindik Dead Kennedys, Zen Guerrilla, Mike Watt eta psikodeliatik edaten duen punk-rock skizo delakorik, baina giro desberdinak lortzearen bidean Union Carbide Productions, Fantomas, Gun Club, perkusio afrikarra, theremina, Zirkoa eta AmRep zigiluko taldeak ere bidelagun izan dituzte. Lan itzela! ■

Iker Barandiaran



1 irakurri

2 hautatu

3 erabili

4 eman iritzia